



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



KULTURA ETIKOA ERAKUNDEETAN GIDA

Partaidetzazko prozesu bidez, Balio Etikoak adosteko eta Gatazka Etikoak bideratzeko aukera.

Data: 2023ko abendua

Sustatzaileak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Prozesuan parte hartu dutenak:

Gida hau **Open Government Euskadi** ekimenaren baitan sortu da, zehazki, **3. konpromisoaren barnean**. 2023 urteko otsailetik abendura bitartean burutu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Innobasquen gidaritzapean, eta Begoña Roman adituaren ekarpenekin, ondorengoek hartu dute **parte ko-sorkuntza prozesuan**: Gipuzkoako Foru Aldundia, Berrikuntzaren Euskal Agentzia - *Innobasque, Asociación de Derecho Colaborativo, Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako Udala, EDE Fundazioa, Emun, Euskadiko Gazteria Kontseilua, Gasteizko Udala, Mestiza elkarte, Tolosako Udala, Unicef Comité País Vasco eta herritar norbanakoek.*

Lantaldeak bi dokumentu hartu ditu abiapuntu gisa: Gasteizko Udalaren Kode Etikoa eta Kataluniako Zerbitzu Publikoen Kode Etikoa.

Mila esker guztioi!

Koordinazioa:

MARAKA

Maketazio eta diseinu grafikoa:

marmarru.studio



Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu du dokumentu hau, eta interesa duen edozein herritarren edo erakunderen eskura jartzen da, Creative Commons Aitortu-Partekatu Berdin 3.0 lizentziapean.

Lege Gordailua: D-189-2024





SARRERA

Esku artean duzuen gida honek, **erakundeetan Kultura Etikoa eta Partaidetza Kultura sustatzeko** proposamena jasotzen du.

Gidak **Kultura Etikoaren inguruko kontzeptuak argitzen** ditu **eta ibilbide proposamena jasotzen du** erakundeetan norabide berean eta modu parte-hartzailean jarduteko. Hala, Gatazka Etikoak Balio Etiko adostuen arabera kudeatzea proposatzen du, eta tresna eraginkorra da erakundeetako Kultura Etikoa adosteko eta sustatzeko.

Gida, hortaz, **bi atal** nagusitan banatzen da: batetik, Kultura Etikoarekin loturiko oinarritzko kontzeptuak eta baliabideak biltzen dituen **Jakintza Maleta** dugu; bestetik, Balio Etikoak adosteko eta Gatazka Etikoak partaidetza bidez ebatzeko **ibilbide-orri baten proposamena** jasotzen dugu.

Era berean, **erakunde bakoitzeko gobernu-edo zuzendaritza-organismoaren konpromisoa ezinbestekoa izango** da prozesua abian jartzeko, jarraipena egiteko eta balioztatzeko; horretarako, **beharrezko baliabideak bermatuko** direlarik. Erakunde publikoen kasuan, ordezkaritza politiko zabalaren babesa eta bultzada izango dira abiapuntu eta onarpen formala ere emango da.

Bukatzeko esan, Gidak proposatzen duen partaidetzazko ibilbide-orria **zuen erakundearen izaera eta tamainaren arabera egokitu** beharko duzuela; beraz, malgutasunez jokatu eta zaindu ezazue prozesua, hori baita Kultura Etiko partekatu baterako ezinbesteko oinarria.

Helduko diozue erronkari?



ZER AURKITUKO DUZU HEMEN?

01 JAKINTZA MALETA

Kultura Etikoarekin loturiko oinarritzko kontzeptuak eta baliabideak.

02 IBILBIDE- ORRIA



Hiru ibilbideak egiteko **Jakintza Maleta** izango da zure bidelaguna. Arakatu ezazu!

1. Ibilbidea

Erakundeetan Kode Etikoaren ko-sorkuntza partaidetza prozesu bidez.

2. Ibilbidea

Etika Batzordearen osaera.

3. Ibilbidea

Deliberazio metodoa oinarri izanda, Gatazka Etikoen prebentzioa, kudeaketa eta ebazpena.




**Kultura Etikoarekin loturiko
oinarrizko kontzeptu eta
baliabideen **jakintza maleta****

JAKINTZA MALETA

Gidaren atal honetan, **Erakundeetan Kultura Etikoa eta Gatazka Etikoen konponbidea era parte-hartzailean adostea ahalbidetuko duen ibilbide-orria osatzeko ezagutu beharreko kontzeptuak eta baliabideak aurkituko ditugu:** Etika, Balioak, Gatazka Etikoak, Kode Etikoa, Etika Batzordea eta deliberazio metodoa. Erakundeetan kontzeptu hauek barneratzen, gure egiten goazen heinean, Kultura Etikoa sortzen joango da.

Hortaz, Jakintza Maleta honen xedea, hasi aurretik **kontzeptuak argitu eta gidaren bigarren zatian proposatzen den ibilbide-orrian zehar lagungarri izatea da.**

! *Hasieran kontzeptuak konplexu xamarrek egingo zaizkizu, baina lasai, behin ibilbidean urratsak ematen zoazela zeure egingo dituzu. Jakintza Maletara itzultzeko beharrik ez duzula izango jabetuko zara!*



*Kontzeptu bakoitzean sakatuz, zer den azaltzen duen orrialdera joan zaitezke zuzenean.



Izenburu hauek sakatuz kontzeptu desberdinetatik mugitu ahal izango zara.

ETIKA

ZER DA?

Giza ekintzen ebaluazioaz arduratzen den filosofiaren esparrua da¹, hau da, bizitzako edozein esparrutako giza **jarrera egokiak sistematizatu, babestu eta sustatzeaz arduratzen dena, ongia, gaizkia, bertutea, zorientasuna, askatasuna eta eginbeharra aztertuz**².

ZERI ERANTZUTEN DIO?

Besteak beste...

- Nola erabaki dezakegu ekintza bat zuzena ala okerra den?
- Zer esan nahi dugu pertsona batek hau edo hori egin behar lukeela diogunean?
- Nola arrazoitu dezakegu iritzi hori?
- Nola bizi behar dugu?

¹Azurmendi, J., & Aintziart, P. (2004). *Filosofiako gida: Filosofian aritzeko oinarriak : gida bibliografiko eta metodologikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea.

²Etika. 2023ko ekainak 28, <https://gizapedia.org/etika>

ETIKA VS MORALA

ETIKA	MORALA
<p>Pentsatu egiten da. Moralak ezartzen dituen ongiaren eta gaizkiaren egokitasunaren inguruan hausnartzen du².</p>	<p>Bizi egiten da. Inposatu egiten da, jokabide okerrak aitzetsi eta zigortu eta zuzenak sustatzen ditu².</p>
<p>Zergatik egin behar dut hau? Nola argumenta dezaket? Eta halako galderari erantzuten die.</p>	<p>Zer egin behar dut nahitaez? Galderari erantzuten dio eta betebeharrekin lotuta dago.</p>
<p>Arrazoiak, hots, argumentuak, ematen ditu (zergatia arrazoituz). Argumentuak balioak, ekintzak, ondorioak (ekintza aurrera eramaten dutenena, ekintza jasaten dutenena), testuingurua eta argumentua bera elkarbanatzea barnebiltzen dituzte.</p>	<p>Pertsonak zuzentzen dituen balio eta arau multzoa da. Akzioak, ekintzak dira betebeharrak hauei erantzuten dietenak (isiltasuna, omisio egitea, informe bat, etab.).</p>
<p>Propositiboa da, ez du erreakzionatzen. Sortzailea da, ez tradizionala. Prebentiboa da. Gardena da. Ez da korrupzioaren aurkako borroka, ezta zuzenbidea soilik.</p>	

²Etika. 2023ko ekainak 28, <https://gizapedia.org/etika>

ZEIN ETIKA MOTA DITUGU?

Kode Etikoa lantzerakoan, lau etika mota bereizten ditugu:

NI-ARI LOTUTAKOAK (INDIBIDUALA)	GU-ARI LOTUTAKOAK (KOLEKTIBOA)
<p>Etika pertsonala Intimoa, pribatua.</p> <p>(“Nire bizitza ona”, nire lehentasunak, nire ontasuna, etab. bilatzea).</p>	<p>Etika zibila Baliabideen bidezko banaketa.</p> <p>(“ETIKA MINIMOA” munduan bizitzeko gutxieneakoak, duintasuna eta justizia).</p>
<p>Etika profesionala Eskaintzen den zerbitzuaren kalitateari lotua, egiten dugunari lotua dago.</p> <p>(Erabiltzaileekiko harremana, eraginkortasuna, bikaintasuna, etab.).</p>	<p>Erakundearen etika / Etika organizazionala Erakundearen identitatea da.</p> <p>(Erakundearen eta eskaintzen denaren kalitatea, etab.).</p>

**ETIKA
PUBLIKOA**





ZER DA ETIKA PUBLIKOA?

Kolektiboari lehentasuna ematea indibidualaren gainetik, hau da, **Etika Zibikoa** (*herritarrekiko zerbitzua, munduan/hirian/ testuinguruan bizitzeko etika minimoa izango litzakena, duintasun eta justiziarekin lotzen dena*) eta **Erakundearen Etika biltzen dituen da** eta hori bermatzeko, **profesional egokienak prestatzen** dituen da.

ZER ESAN NAHI DU PROFESIONAL EGOKIA IZATEAK?

Etika zibikoa eta erakundearena (Gu, kolektiboari lotua) lehenesten dituen da, etika indibidualaren (Ni), hots, etika pertsonal eta profesionalaren aurretik.





BALIOAK

ZER DIRA?

Balioak gauzetan, pertsonengan edo ekintzetan antzematen ditugun kualitate edo nolakotasunak dira.

Balio mota desberdinak daude (etikoak, zientifikoak, ekonomikoak, estetikoak, intelektualak, erlijiozkoak, zentzumenezkoak, etab.).

ZER DIRA **BALIO ETIKOAK**?

Balio Etikoek, pertsonekin eta hauek bizitzan duten portaerarekin dute zerikusia.

Pertsonei bakarrik esleitu dakizkiekegu.

Adibidez, ez du zentzurik natura onbera dela edo inurria atsegina dela esateak.

Balio Etikorik gabe, bizitzak ez luke gizatasunik izango. Horretarako, identifikatu, sustatu, defendatu eta unibertsalizatu egin behar dira.

Balio Etiko batzuk: askatasuna, justizia, erantzukizuna, elkartasuna, zintzotasuna, tolerantzia, elkarrizketarako prestutasuna, begirunea, abegikortasuna, gupida, etab.



GATAZKA ETIKOAK

ZER DIRA?

Gure egiten ditugun **balio eta printzipioen, eta beraien arteko hierarkiaren inguruan sortzen diren desadostasunak**, erabakiak modu etikoan hartzea zailtzen dutenak.

Adibidez, erakundeko bi departamentu ezberdinek dituzten balioak kontrajartzen direnean eta hauen arteko lehenetasunak zehazteko arazoak ditugunean.

ZEIN MOTATAKO GATAZKA ETIKOA DA INTERES GATAZKA?

Gatazka Etikoa sortzen da **interes personala edota profesioala** (biak norbanakoaren interesekin loturikoak), **etika zibikoaren edota erakundearen etikaren gainetik** (biak interes kolektiboekin loturikoak) lehenenesten denean.

NON EMATEN DIRA ETA NOLAKOAK DIRA GATAZKA ETIKOAK?

Gatazka Etikoak erakunde guztietan sortzen dira;
nagusienak arlo hauetan ematen dira:

- Erakundearen eta herritarren arteko harremanetan.

Adib.: tratu pertsonala, isilekotasuna, zerbitzuen erabilera, etab.

- Baliabide publikoen kudeaketan.

Adib.: sail ezberdinen kudeaketa irizpideak, giza baliabide eta baliabide material urria, etab.

- Profesionalen eguneroko lanean eta arauak aplikatzean.

Adib.: antolaketa, koordinazio eskasa, arauen ezagutza eza, etab.

- Zerbitzuen arteko eta Erakunde korporazioarekiko harremanetan.

Adib.: elkarrizketa eta akordiorako gaitasuna, akordioak eta planak betetzeko gaitasunak, herritarrekiko harremanak, etab.



Gida honen [42. orrialdean](#) Gatazka Etikoen adibide praktikoak topatuko dituzue.

NOLA AZTERTU ETA EBATZI GENITZAKE?

Gatazka Etikoak aztertu eta ebazteko deliberazio prozesua bideratzen da erakundearen ezaugarri diren balioen azterketan oinarrituta.

Prozesu horretarako, hots, Gatazka Etikoa aztertu eta ebazteko, lagungarria gertatzen da erakundeak alde aurretik adostutako **Kode Etikoa*** izatea.

*Jakingo zenuke
Kode Etikoa zer den?*



**Definizioa 16. orrialdean.*



KODE ETIKOA

ZER DA?

Erakundearen ezaugarritzat nahi diren balioak jasotzen dituen dokumentua da, erakundearen sortzen diren Gatazka Etikoak kudeatzeko lagungarria izango den baliabidea.

Bertan jasotzen diren balioak, erakundea osatzeko hautatuko pertsonak eta erakundeko edozein eremutan lan egiten duten pertsonak partekatzen dituzten balioak eta printzipioak dira.

Tresna honen **helburua** honakoa da: **erakundeetako balio partekatuak sustatu, elkarbanatu eta errespetatzea. Zertarako? gatazken aurrean nola jokatu eta zer egin hausnartzea ahalbidetzeko, partekatutako balioako oinarri dituzten konponbideak bilatuz.**



Jakintza maleta

Etika | Balioak | Gatazka Etikoak | Kode Etikoa | Etika Batzordea | Deliberazio metodoa

EZAUGARRIAK

- **Izaera lokala zein unibertsala:** biltzen dituen balioak testuinguru jakin baterako egokiak dira (izaera lokala) eta, era berean, etika minimoan oinarritutako kode etikoaz dihardugunez, edozein pertsonak (izaera unibertsala) nahi lituzkeen balioak jasotzen ditu.
- **Autorregulaziorako** erabiltzen da.
- Borondatek eta elkarbanatzen ditugun balioetatik sortzen da, **ez du derrigortzeko ahalmenik, aholkatu egiten du eta deliberaziorako baliabidea ere bada.**
- **Praktikoa, bizia, dinamikoa, moldagarria eta eguneragarria** da.

ZER EZ DA?

- Inposatutako arau/gobernantza-kode bat.
- Kode-deontologiko/printzipio-adierazpen bat.
- Jokabide-kode bat.
- Ideologia politiko, egiaztatzeko edo ziurtatzeko modu edo kalitate-zigilu bat.

Kode Etikoak, ez du behartzen, ez epaitzen ez zigortzen.

Kode Etikoak hausnartzera, erabakiak arrazoitzera garamatza.



Gogoratu, etikak ez du behartzen, izan ere, ezin da zerbait egin nahi edo desio izatera behartu.

NOLA ERAMANGO DA KODE ETIKOA PRAKTIKARA?

Erakundeetan Kode Etikoa sustatuz eta komunikatuz. Horrela, erakundearen parte diren pertsonak edota harekin harremanetan jartzen direnak erakundearengandik zer espero dezaketean eta haiengandik zer espero den jakingo dute, bertan jasotzen diren balio eta printzipioekin bat etorritik jardun eta erabakiak argudiatu ahal izan ditzaten.

Sustatze eta komunikatze funtzio hau, erakundearen **Etika Batzordearen*** bidez egingo da, besteak beste.

*Kode Etikoa eta Jokabide Kodea
sinonimoak direla esango zenuke?*



**Definizioa [22. orrialdean](#) aurkituko duzue.*



KODE ETIKOA VS JOKABIDE KODEA

	KODE ETIKOA	JOKABIDE KODEA
DEFINIZIOA	Erakundea osatzeko hautatuko pertsonak eta erakundeko edozein eremutan lan egiten duten pertsonak partekatzen dituzten balioak eta printzipioak jasotzen diren dokumentua, gatazken aurrean ditugun aukera posibleen artean nola jokatu eta zer egin hausnartzea ahalbidetzen duena . Dokumentu bizia eta moldagarria da, ez du zigortzen eta borondatezkotasuna eta arrazoimenaz baliatzen da modu jakin batean jokatzeko , betiere jokabidea zehaztu gabe eta horren erabakia ardura duen pertsonaren esku utziz.	Erakunde barruko pertsona ororen jokabidea gidatzen duten arau, deklarazio, konpromiso, printzipio eta balio multzoa.
HELBURUA	Gatazka Etikoen aurrean, gida praktiko bat izatea erakundearen bereizgarri diren balio partekatuak sustatu, zabaldu eta errespetatzeko , baita Gatazka Etikoen aurrean hauek babesten dituzten konponbideak deliberazio bidez bilatzen laguntzeko ere .	Erakundeko langileengandik espero den jokabideak bildu eta erakundeak babesten dituen balio eta printzipioak defendatzea .
METODOA	Deliberazioa eta baloreen azterketa.	Inposaketa eta agindua.
JASOTZEN DITU	Kontsulta, hausnarketa eta orientaziorako balio eta printzipioak.	Praktika zehatzen definizioa.
ZER ERREGULATZEN DU?	Erabakiak hartzea, hausnarketa.	Jokabidea.

ZERGATIK KODE ETIKO PARTE- HARTZAILE BAT?

- Lanerako eta harremantzeko orduan **erakundeak bere egin nahi dituen balio eta printzipioak** erakundeko kideen artean adosteko.
- Erakundearen **jokaera aztertzea ahalbidetzeko.**
- Erakundearentzat **balio garrantzitsuenak zein diren ezagutzeko eta definitzeko aukera emateko eta hauek sustatzeko**, erakundeko kideak prozesuko **parte direla sentiaraziz.**
- **Gatazka Etikoak prebenitu eta kudeatzen ditu, zentzuzkoak, zuhurrak eta arrazoituak diren erabakiak hartzen lagunduz**, Gatazka Etikoetan sortzen diren faktore guztiak kontuan hartuz.
- Kodea tresna **erabilgarria eta onuragarria da erakundeko langileentzat beren lanean, baita erakundearekin harremanetan daudenek** jakin dezaten honengandik zer espero behar duten eta erakundeak euren gaindik zer espero duen.

Kode Etikoa, erabakiak hartzeko gida eta erakundeko arlo ezberdinen arteko harremanetan edota herritarrekiko harremanetan sor daitezkeen Gatazka Etikoak konpontzeko egiten diren proposamenak aztertzeko oinarria izan daiteke.

ZERTARAKO? ZER ZENTZU DU?

Zentzu bikoitza du:

1 Erakundearen Kultura Etikoa bere osotasunean (sailen arteko harremanak, erabiltzaileekiko harremanak...) definitzeko, berrikusteko eta berraztertzeko.

2 Erakundearentzat garrantzitsuak diren balioak eta hauek aplikatzeko modua jasotzen duen gida izateko:

- Egiten dugunaren zentzuaz jabetzeko eta balioak partekatzen dituen komunitate baten zatia garela sentitzeko.
- Zereginak betetzen eta erabakiak hartzen laguntzeko.
- Pertsonen balioak eta lana bateratzen lagunduz eta balio horiek sustatzeko nola jokatu behar dugun aholkatzeko.
- Prebentziorako: pertsona guztientzako lan-ingurune onuragarria sortzeko, gatazkei aurrea hartuz eta konponduz.
- Arazoak aldean arteko eztabaidaren eta elkarrizketaren bidez aztertzeko.
- Erakundearen etika eta balioak ikusgarri eta estimagarri egiteko.
- Hobekuntzak egiteko.
- Herritarren artean balio horiek partekatzeko.
- Partaidetza kultura erakundearen zeharka barneratzeko.



ETIKA BATZORDEA

ZER DIRA?

Deliberazio organoa da, orientabideak eta gomendioak ematen dituena balio-gatazkek sortzen dituzten **zalantza-egoeretan erabakiak hartzen laguntzeko**.

Horrez gain, **Kultura Etikoa sustatu, Kodea eguneratuta mantendu eta jardunbide egokiak jasotzen** ditu, besteak beste.

EZAUGARRIAK

- **Ez du exekututzen**, aholkuak ematen ditu.
- **Autonomia eta burujabea da**. Ez dago inongo aginduren menpe eta ez du inongo agintarik emandako jarraibiderik jasoko.
- **Erakundeak bitartekoak jartzen ditu batzordeak funtziona dezan**. Batzordeak, erakundeko langileei kolaboratzeko eska liezaieke.



*Gogoratzen zeintzuk diren eta
noiz sortzen diren gatazka hauek?*

ZEIN HELBURU DU?

- **Kode Etikoaren balioak sustatzea,** jardunbide etikoak sendotzeko moduak ahalbidetuz.
- **Kultura Etikoa zaintzeaz arduratzen da.**
- **Kontsulta eta prestakuntza funtzioa izatea,** erabakiak hartzeko orduan balioak gatazkan sartzen direnean lehentasunak nola ezarri argudiatuz, **erakundearen ekintzen kalitatea hobetzeko.**
- **Gomendioak proposatu eta gatazkek konpontzen ditu.**

NOLA JOKATUKO DU?

Hasteko, Etika Batzordeak Kode Etikoa zabaldu eta Kultura Etikoa zainduko du erakundeetan. Horrez gain, Gatazka Etikoak saihesten laguntzeko dibulgazio eta kontzientziazio ekimenak sustatuko ditu. Gatazka Etikoen aurrean, **deliberazio metodoa*** aplikatuko du, gatazkek aztertu eta ebazteko.

Oro har, erakundeetan gatazkek dilema gisa planteatzeko joera dago. Honek, balio bat besteari gailentzea ekarriko du. Etika, aldiz, arazo jakin batean baliozkoztat jotzen ditugun alderdi guztiak zaintzen saiatzen da. Horretarako, beharrezkoa da gatazken aurrean deliberazioa, hots, **arazo etikoak aztertzekeo prozedura.**



**Definizioa [24. orrialdean](#) aurkituko duzue.*



DELIBERAZIO METODOA

ZER DA?

Arazo etikoetan, **gatazkan egokitzen diren faktore guztiak kontuan izanik zentzuzko erabakiak, zuhurrak eta argudiatuak hartzeko prozedura/metodologia da.**

*Gogoratzen al duzu zer den
Gatazka Etiko bat?*



*Zure erakundearen Gatazka Etikoei erantzuteko
baliabidea izango den erakundearen Kode Etikoa sortzen
nondik hasi jakingo al zenuke?*



*Eta, deliberazio metodoa Gatazka Etikoen
aurrian nola aplikatu jakingo al zenuke?*



Erakundeetan, Gatazka Etikoak era parte-hartzailean ebazteko **ibilbide-orria**



IBILBIDE-ORRIA

Gidaren bigarren atal honek, **Erakundeetan, Gatazka Etikoak era parte-hartzailean ebazteko ibilbide-orria jasotzen du**. Sarreran aipatu bezela, hau ibilbide-orri proposamen bat da, **moldagarria izango dena erakunde bakoitzaren** izaera eta tamainaren **beharren** arabera.

Ibilbide-orria elkarren segidan ematen diren **hiru ibilbideetan banatzen da**. Lehenengo ibilbideak, **Kode Etikoaren sorkuntzan partehartzailea** du ardatz; bigarrenak, **Etika Batzordearen osaera prozesua**; eta, hirugarrenak, deliberazio metodoa erabiliz **Gatazka Etikoen kudeaketa**.

Ibilbide-orri hau martxan jartzeak erakundeei aukera eskaintzen die beraien Kultura Etikoa adosteko; Kode Etiko propioa sortzeko; eta, Gatazka Etikoen prebentzioa, kudeaketa eta ebazpena egiteko, lehen bi ibilbideetan adostu diren Balio Etikoetan eta Kode Etikoan oinarrituz.

Ibilbide-orriaren prozesua **ebalatu** egin behar da, eta komeni da hasieratik ebaluazio-prozesua definitzea eta behar diren adierazleak identifikatzea. Erreferentzia gisa, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Prozesu Parte-hartzaileak Ebaluatzeko Gida** erabili daiteke.



ABIAPUNTUA

1. Ibilbidea



Erakundeetan Kode Etikoaren
ko-sorkuntza partaidetza prozesu bidez.



ETIKA BATZORDEA OSATZEA

2. Ibilbidea

Etika Batzordearen osaera.



PARTAIDETZA PROZESU BIDEZKO KODE ETIKOA



GATAZKA ETIKOAREN EBAZPEN-PROPOSAMENA

3. Ibilbidea

Gatazka Etikoen prebentzio, kudeaketa eta
deliberazio bidezko ebazpenerako ibilbidea.





1. IBILBIDEA

Erakundeetan Kode Etikoaren ko-sorkuntza partaidetza prozesu bidez.

Lehen ibilbide honen **xedea** da **erakundearen Balio Etikoak eta** hauek oinarri izango dituen **Kode Etikoa partaidetza prozesu baten bidez ko-sortzea**. Horretarako, bost urratsetan banatzen da ibilbidea. Sortzen goazen Kode Etikoaren ebaluaketa eta

jarraipena jarraia izango da eta ibilbidean aurrera egiten den heinean beharrezko egokitzapenak eta hobekuntzak txertatuko dira. Prozesuaren fase honetan, erakunde osoak hartuko du parte. Ondorengo orrialdeetan, urrats bakoitzari buruzko informazioa biltzen da.

0. ABIAPUNTUA





0. ABIAPUNTUA

HELBURUA

Horrelako prozesu bat abiatzeak, erabaki hau hartzen duten erankundeen ausardia eta borondate sendoa eskatzen du.

Hori dela eta, bidea hasteko prest ote gauden ziurtatzen lagunduko digun checklist-a aurkituko duzu hemen, ondorengo helburuak dituen:

- Kode Etikoa sortzeko prozesu parte-hartzailea hasi aurreko **abiapuntua zein den zehaztea, hots, kokatzea.**
- Erakundeen **ausardia eta borondate** sendoa eskatzen duen prozesu baten aurrean gaudela **kontziente izatea.**
- Erakundeko **erabaki organoen babesa** lortzea.
- Beharko diren **baliabideak eta Batzorde Etikoaren talde sustatzailea eratuko duten pertsonen konpromisoa, prestakuntza eta lidergoa izatea.**



CHECKLIST-A

Diagnostikoa

- Erakundeetan eraldaketa ekarriko duen prozesu baten aurrean gaude; prest gaude horretarako? Kontziente gara?
- Zein da prozesu honen intentzionalitatea? Zer lortu nahi dugu honekin?
- Nola harremantzen da prozesu hau erakunde barruko beste prozesuekin?
 - Zer nolako deliberazio foroak ditugu egun?
 - Ba al dago Etika Batzorderik?
 - Gaiari buruzko prestakuntzarik eskaini al da?
 - Egin al da Kode Etiko bat onartzeko barne-prozesurik?
- Zer egin dugu honaino iristeko? Non aurkitzen gara?

Babesa

- Erakundearen erabaki organoaren edota babes politiko-tekniko esplizitua dugu? (borondatea, konpromisoa eta inplikazioa beharrezkoak dira prozesu honetan).
- Erakundearen Plan Estrategikoarekin bat dator edota barne hartzen du?
- Bada prozesua aurrera eramateko eskaera edo enkargu bat?
- Prozesu parte-hartzailearen emaitza, dena delakoa izanda ere, onartu eta aurrera eramateko konpromisoa dago?

Baliabideak

Halako prozesu bat martxan jartzeko, beharrezkoa da, beharko diren baliabideak ziurtatzea eta parte-hartzea sustatu eta bermatzea, ahalik eta ordezkaritza zabalena ahalbidetuz.

- Baliabideak (denbora, ekonomikoak, pertsonalak, etab.):
 - Nork parte hartu ahal edo nahi duen identifikaturik dugu?
 - Parte hartuko dutenen dedikazioak kontutan hartzen dira?
 - Aurrekontuetan prozesua kontutan hartu da/hartuko da?
 - Formakuntza beharra dago? Hala bada, formakuntza aurreikusten da? Zertan?



1. INFORMAZIOA ETA HASIERAKO PRESTAKUNTZA

HELBURUA

- Informazio eta prestakuntza plana garatzea.
- Erakundearen **Misio, Bisio eta Balioen lehen zirriborroa** eratzea.

ZER LORTZEKO?

- **Proiektua prestatzen eta garatzen laguntzeko.**
- Kode Etikoa lantzeko **planaren buru izango diren pertsonak prestatzeko.**
- **Erakunde osoari prestakuntza** orokorra ematea, **Kode Etikoa zer den, zertarako balio duen eta balio gatazkak konpontzeko nola erabiltzen den** jakin dezaten, eta gomendioak eta proposamenak egiteko.

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?





2. ERAKUNDEAREN DATUEN BILKETA

HELBURUA

Testuingurua definitzea horretarako erakunde bakoitzak dituen **kanalak identifikatu eta erabiliz, eta multi-kanalitatea bermatuz**, online zein formatu fisikoan.

Adibidez: inkesta, behaketa, elkarrizketa, informazio biltetarako partaidetza saio, etab.


ZER LORTZEKO?

- Erakunde **arlo bakoitzaren helburua definitzea.**
- Arlo bakoitzaren **helburuari balioa ematen diona identifikatzea.**
- **Zein arazo dagoen detektatzea**, non sortzen diren eta zein baliorekin lotzea.



*Inspirazio bila zabilta?
33. orrialdera jo ezazu!*

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?



**Informazioa biltzeko erabilitako metodoek, adibidez inkestek, erakundearen datuen berri emango dute, hala nola, langileek betetzen dituzten funtzioen helburuak zeintzuk diren, funtzio horiek aurrera eramateko beharrezko balioak zeintzuk diren eta, egunerokoan, funtzio hauek betetzerakoan (esaterako, herritarrekiko harremanetan eta eskaintzen dituen zerbitzuetan) zein gatazka sor litezken.*



ZER GALDETU GENIEZAIKE ERAKUNDEKO LANGILEEI?

Erakunde modura, Kode Etikoa osatzeko beharrezko ikusten dugun guztia, eta erakunderen konplexutasunaren irudi orokorra lortzen lagunduko diguten galderak, adibidez:

ZER GALDETU

Zein da zure lanean egiten dituzun zereginen helburua? (Helburu nagusia).



Adieraz itzazu zure eguneroko eginkizunetarako aproposak diren hiru ezaugarri pertsonal.



Zein izan ohi dira zure lanean gatazka arrazoi nagusienak?



Zerk sentiarazten zaitu erakunde kide izateaz harro? Eta zerk sentiarazten zaitu, sentiaraztekotan, auzo-lotsa?



EZAGUTZEKO

Erakunde arlo bakoitzaren helburua zein den.

Arlo bakoitzaren helburuari balioa ematen diona zer den.

Erakundearen zein gatazka ematen diren, non eta zein baliori loturik.

Langileek zer baloratzen duten eta zerk sentiarazten dituen harro, eta zerk ez, erakundearen parte izateagatik.

Aukera egon daiteke herritarrengana ere gerturatzeko. Zer galdetu geniezaieke?

- Zer espero duzu erakundetik eta, zure ustez, erakundeari ere interesatzen zaio?

- Zer espero duzu erakundetik eta, zure ustez, erakundeari ez zaio interesatzen?

- Zer ez duzu erakundetik espero erakundetik eta, agian, erakundeak hala nahiko luke?



3. ETIKA BATZORDEAREN TALDE SUSTATZAILEA ERATZEA

HELBURUA


- Etika Batzordearen talde sustatzailearen funtzioa eta kodearen sortze **prozesuko partaidetza irizpideak definitzea.**
- Kode Etikoaren **lehen zirriborroa sortzea.**

ZEINTZUK OSATUKO DUTE ETIKA BATZORDEAREN TALDE SUSTATZAILEA?

Prestakuntza jaso duten eta Etika Batzordean parte hartzeko interesa eduki dezaketen pertsonak.

Talde sustatzailearen osaketan, partaidetza orekatua bilatuko da (generoa, adina, erakundeko arloa eta lanpostu atxikipena). Hauek, erakunde bakoitzak definituko dituen irizpideak izango dira.

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?





4. KODE ETIKOAREN LEHEN ZIRRIBORROA SORTZEA

HELBURUA

Kode Etikoari **forma ematen hastea** lehen zirriborroa eratuz.

GAKOAK

- **Antolaketa.** Lekua, baliabide materialak, pertsonak, partaideen zenbatekoa, saio kopurua, saioen helburua etab. aurrez definitzea.
- **Barne eztabaida/lan-taldeak sortzea,** oso jendetsuak ez direnak eta erakundeko hainbat arlotako kideen elkarlana bilatzen dutenak.
- **Talde sustatzaileak lehenengo zirriborroa sortu.**
- **Partaidetza sustatuko duten estrategiak** erabiltzea elkarlan saioetan, talde txikitako lana, bakarkoa eta amankomunean landu eta partekatzea ahalbidetuz, esaterako.

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?





5. KODE ETIKOA OSATZEA, ADOSTEA, ONARPEN FORMALA JASOTZEA ETA KOMUNIKATZEA

HELBURUA


Kode Etikoari modu parte-hartzailean **forma ematea**, lehen zirriborrotik hasita eta, behin adostuta, **komunikatzea**. Kodea sortzeko prozesu parte-hartzailean zehar, lehenengo Etika Batzordea osatuko duten kideak zehazten joango da.

NOLA EMANGO DA?

Fase honen aurretik, talde sustatzaileak Kode Etikoaren lehen zirriborria osaturik izango du.

- 1** **Kode Etikoa zabaltzen** joango da, eragile ezberdinei aurkeztearekin batera. Hala, zabaltzen doan heinean, Kodea eraldatuz eta elikatuz joango da.
- 2** Behin Kode Etikoa **adostuta, azken planteamentua definitu**.
- 3** **Kode Etikoa formalki onartu eta publiko** egingo da.

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?



PARTAIDETZA PROZESU BIDEZKO KODE ETIKOA



Kode Etikoa malgua eta eguneragarria da.



Ibilbidea

1. Ibilbidea | 2. Ibilbidea | 3. Ibilbidea



1

Kode Etikoa adostu, osatu, formalki onartu eta komunikatu.

Kode Etikoa barne-lanketa/eztabaidarako lantaldean landu da partaidetza bidez, eta behin adostuta, Erakundeko kanal ezberdinen bidez, erakunde barruan elkarlanean adosturiko Kode Etikoa komunikatuko da, adibidez, erakundeko web-orrialdean.

Gardentasuna bermatzeko gutxieneko pausoa.

2

Kode Etikoa sozializatzea: beste eragile batzuei zabaltzea.

Beste eragile batzuei zabaltzeak, lanketan sakontzeko aukera zabaltzen du eta Kode Etikoa elikatzeko balioko du.

Aukerako pausua, prozesuan sakontzeko.


URRATS HONETAN KONTUTAN IZAN BEHARREKOAK

- **Dokumentuaren lanketarako, barne lanketarako taldeak osatzea, oso jendetsuak ez direnak.**
 - Oraindik idazketa prozesuan dagoen Kode Etikoa frogatzeko, berau aplikatuz konpondu beharreko Gatazka Etikoak aztertu eta ebaztea helburu duten dinamikak proposatzea.
 - Gatazka Etikoen kasuak proposatzeko dinamikak sortzea.
- **Kodea barrura begira adostea.**
- **Kodea adostua kanpora zabaltzea,** erakundearekin harremanetan dauden eta prozesurako interesekoak diren taldeei.
- **Kodearen onarpen formala,** erakunde bakoitzari dagokion prozedura jarraituz.



KONTUAN IZATEKOAK

- Ibilbidearen eta ko-sortzen doan Kode Etikoaren **ebaluaketa eta jarraipena zeharkakotasunez eta modu jarraituan, egingo da.** Unean uneko egokitzapen eta hobekuntzak txertatuz joango gara.
- **Kode Etikoak denboran zehar egokitu eta moldatzeko beharra du,** bestela zaharkitua geratzeko arriskua izan dezake eta Gatazka Etikoen iturri bihurtu. Haatik, oso maiz aldatzen badugu, erakunde barnean baloreak adostuak ez direnaren seinale izango da.





2. IBILBIDEA

Etika Batzordea osatzeko fasea.

HELBURUA

Etika Batzordea **osatzea eta martxan jartzea.**

NORTZUK OSATZEN DUTE?

1. Erakundeko pertsonak
2. Etikan adituak*

Pluraltasun
moralak bermatuz

Lehenengo Etika Batzordea osatuko duten pertsonen zerrenda Kode Etikoa egiteko partaidetza-prozesuan zehar zehaztuko da.

PARTE HARTZAILEEN PERFILA

- Espiritu independentea, hortaz, politikariak ez dira batzorde barruan egongo.
- Jarrera aktibo, kontziente, diskretoak.
- Elkarrizketarako eta taldean aritzeko gaitasuna.
- Borondatezko parte-hartzea.
- Ikasteko prestutasuna eta irauteko konpromisoa.
- Etika zibikoduna, baita antolakuntza etika, etika profesional eta pertsonala ere.
- Aldez aurretik Batzordeko kide izateko prestakuntza eta gaikuntza duten pertsonak.

ZEIN IZANGO DIRA IBILBIDEKO PAUSUAK?




Erakundeak, beharrezko diren bitartekoak jarriko ditu Etika-Batzordeak egoki funtzionatu dezan eta, horrez gain, Batzordeak erakundeko langileen laguntza eta sostengua eskatu ahal izango du.

*Etika Publikoan adituak direnen parte-hartzea gomendagarria izan daiteke baina ez da derrigorrezkoa.



3. IBILBIDEA

Deliberazio metodoa oinarri izanda, gatazka etikoen prebentzioa, kudeaketa eta ebazpena.



Zein pausu emango ditu Etika Batzordeak proposamenak egin eta hauek berresteko? Zein metodo aplikatuko du?



ZEINTZUK DIRA KONSISTENTZIA PROBAK?

- **Legezkotasunaren proba.** Erabaki zuhurrenak legediaren ikuspuntutik aztertzea.

Proposatzen duguna bat al dator indarrean dagoen legediarekin?

- **Denborazkotasunaren proba.** Proposaturiko inizatiben inguruan erabakiak hartzerakoan denborak zer eragin duen aztertzea.

Ondo neurtu da erabakia hartzeko/gauzatzeko beharko dugun denbora?

- **Publizitatearen proba.** Gatazka ebazteko proposatu ditugun ekimenen oinarri diren azterketa eta argudioak aztertzea.


“Gardentasuna”rekin lotzen da.

Funtsezko proba da kudeaketa politiko-publikoaz eta herritarrei eragiten dieten erabakiak hartzeaz arduratzen diren erakundeentzat.

Deliberazion parte hartu dugunok publikoki arrazoitzerik izango genuke nola eta zergatik hartu ditugun erabaki hauek? Zergatik dira jardunbide onenak, zuhurrenak edo ez hain txarrak?


GATAZKA ETIKOEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Erakundeetan sor daitezkeen **Gatazka Etiko ohikoenak** bildu ditugu atal honetan: Herritarrekin sortzen diren gatazkak; baliabideen kudeaketa eta erabileran ematen diren gatazkak; langileen egitekoekin eta arauak betetzearekin lotutako gatazkak; eta erakunde



barruko departamentu-zerbitzuen arteko gatazka edota erakundeen artekoak.

Horrez gain, **gatazka-kasu praktikoak jasotzeko eta komunikatzeko fitxa** eredu aurkituko duzu.





Langileen egitekoekin eta arauak betetzearekin lotutako gatazkak

Lehiakortasun gatazkatsua, emozio-gatazkak, lehentasunak, epeak, etab.

Antolakuntza, koordinazio, lidergo zein talde- lan eza edota ezegokia

Araudia ez ezagutzeagatik, irizpideak ez betetzea

Koherentzia esan eta egiten denaren artean

Burokrazia

Araudiaren interpretazioa

Araudia betetzea eta, aldi berean, eraginkor izatea

etab.

Erakunde barruko departamentu-zerbitzuen arteko gatazkak edota erakundeen arteko gatazkak

Konpromezuak ez betetzea

Komunikazio eskasa edota hartu-eman gatazkatsuak

Elkarrizketa eta akordiorako gaitasun eza

Hierarkia

Hedabideekiko harremanak

Erakunde arteko elkarlanerako oinarrizko konfiantza falta

Gaitasuna

etab.

GATAZKA-KASU PRAKTIKOAK JASOTZEKO ETA KOMUNIKATZEKO FITXA EREDUA

- 1. Arazo-kasuaren deskribapena:** testuingurua eta gertaerak jaso.
- 2. Gatazka Etikoaren identifikazioa:** arazo hori Gatazka Etikoa den edo ez arrazoitu.
- 3. Deliberazioa:** erakundearen adostutako Balio Etikoak oinarri hartuta, Gatazka Etikoaren hausnarketa egin.
- 4. Gomendioa(k) edota proposamena(k):** erantzun egingarri eta egokiak proposatu.



AURKIBIDEA

1. Sarrera

2. Zer aurkituko duzu hemen?

3. Jakintza Maleta

3.1. Etika

- 3.1.1. Zer da?
- 3.1.2. Zeri erantzuten dio?
- 3.1.3. Etika vs Morala
- 3.1.4. Zein etika mota ditugu?
- 3.1.5. Zer da Etika Publikoa?
- 3.1.6. Zer esan nahi du profesional ona izateak?

3.2. Balioak

- 3.2.1. Zer dira?
- 3.2.2. Zer dira Balio Etikoak?

3.3. Gatazka Etikoa

- 3.3.1. Zer da?
- 3.3.2. Zerk desberdintzen du interes gatazka batekin?
- 3.3.3. Non ematen dira eta nolakoak dira Gatazka Etikoak?
- 3.3.4. Nola aztertu eta ebatzi genitzake?

3.4. Kode Etikoa

- 3.4.1. Zer da?
- 3.4.2. Zer ez da?
- 3.4.3. Nola eramango da Kode Etikoa praktikara?
- 3.4.4. Kode Etikoa vs Jokabide kodea
- 3.4.5. Zergatik Kode Etiko partehartzaile bat?
- 3.4.6. Zertarako? Zer zentzu du?

3.5. Etika Batzordea

- 3.5.1. Zer da?
- 3.5.2. Zein helburu du?
- 3.5.3. Nola jokatuko du?

3.6. Deliberazio metodoa

- 3.6.1. Zer da?

4. Ibilbide-orria

- 4.1. Erakundeetan Kode Etikoaren kosorkuntza partaidetza prozesu bidez
 - 4.1.1. Abiapuntua
 - 4.1.2. 1. ibilbide-urratsa: Informazio eta hasierako prestakuntza

4.1.3. 2. ibilbide-urratsa:

Erakundearen datuen bilketa

4.1.4. 3. ibilbide-urratsa: Etika

Batzordearen talde sustatzailea eratzea

4.1.5. 4. ibilbide-urratsa: Kode

Etikoaren 1. zirriborroa sortzea

4.1.6. 5. ibilbide-urratsa: Kode

Etikoa osatzea, adostea, onarpen formala jasotzea eta komunikatzea

4.1.7. Kontuan izatekoak

4.2. Etika Batzordea osaerarako

ibilbidea

4.3. Deliberazio metodoa oinarri

izanda, gatazka etikoaren prebentzioa, kudeaketa eta ebazpena

4.3.1. Deliberazio metodoa

4.3.2. Zeintzuk dira konsistentzia probak?

4.3.3. Gatazka Etikoaren adibide

praktikoak



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

